

# Aldatzen ari dira komunikatzeko moduak

Bistan da gure artean hitz egiteko modua aldatzen ari dela. Lehen aurrez aurreko komunikazioa zen nagusi, baina gaur egun, teknologia dela-eta, bestelako formak ari dira indarra hartzen, gazteen artean batez ere. Gai horren jiran arituko gara sekuentzia honetan.

Bertan ariketa hauek dituzu:

- Gaian sartu eta ulermen-ariketei erantzun.
- Komunikatzeko moduak nola ari diren aldatzen, eta horiek etorkizuna nola irudikatzen ditugun komentatu.



## 1. Belaunaldi isila

Audioa entzun aurretik, eta gaian sartzen joateko, komentatu ondokoarekin puntu hau:

- Asko idazten al duzue? Nori? Zer bitarteko erabiltzen duzue idazteko: Whatsappa...

Orain entzun audioa eta erantzun galderi.



<https://labur.eus/3rnq2>



- 1- Gazteek gurasoekin komunikatzeko, zer bitarteko erabiltzen dute?  
.....
- 2- Zer aplikazio aipatzen dituzte audioan? .....
- 3- Gazteak elkartzen direnean, elkarrekin hitz egin ala mugikorrari begira egoten dira?  
.....
- 4- Gazteak erreparatzen al dio ortografiari? .....
- 5- Zer dio bukaera aldera, emakume batek mugikorreko ortografia-zuzentzaileari buruz?  
.....
- 6- Zergatik barre egiten dute bukaeran?  
.....

## 2. Komunikazioa lehen, orain eta gero

Gure arteko komunikazioa nola aldatu den komentatuko dugu talde txikitan.

Hasteko, osatu beheko taula.

	Aurrez aurre hitz egin	Telefonoz	Idatziz Mezuak, gutunak
Familiakoekin			
Lagunekin		Lehen asko hitz egiten genuen telefonoz. Orain gero eta gutxiago.	



Aldaketak adierazteko, honako hizkuntza-baliabide hauek erabil ditzakezu:

- KONPARAZIOZKOAK: **gero eta gehiago/gutxiago, baino –ago/gehiago/gutxiago**

*Gaur egun elkarrekin komunikatzeko, gero eta gehiago erabiltzen ditugu mezuak, eta gero eta gutxiago deitzen dugu.*

- AURKARITZAKO LOKAILUAK: **berriz/aldiz, ordea**

*Lagunekin ateratzeko gelditzeko, lehen telefonoa erabiltzen genuen; orain, berriz, Whatsapp bidez egiten dugu.*

Orain komentatu ondorengo puntu hauek.

**Zer aldatuko zenukete gaur egungo komunikatzeko moduan?**

- Nik nahiago nuke elkarrekin gehiago hitz egitea aurrez aurre.
- Niri horrela, mezuak erabiliz eta, gehiago gustatzen zait: askatasun gehiago ematen dizu.

**Nola irudikatzen duzue izango dela gure arteko komunikazioa 20 urte barru?**

- Nik uste dut gero eta gutxiago hitz egingo dugula aurrez aurre.
- Ados nago. Agian, dena kameren bidez izango da komunikazioa.

Komentatu talde osoaren aurrean

zer ondoriotara iritsi zareten zuen taldean.



# ERANTZUNAK

## 1. Belaunaldi isila

1- **Gazteek gurasoekin komunikatzeko, zer bitarteko erabiltzen dute?**

*.Whatsappa normalean; presakoa bada, telefonoa.*

2- **Zer aplikazio aipatzen dituzte audioan?** *Facebook, Messenger, Whatsapp, Telegram eta Instagram.*

3- **Gazteak elkartzen direnean, elkarrekin hitz egin ala mugikorrari begira egoten dira?**

*Biak egiten dituzte; hala ere, gazte bat kexatzen da elkartzen direnean ere mugikorrari kasu gehiegi egiten diotela.*

4- **Gazteak erreparatzen al dio ortografiari?** *Ez, mugikorrak egiten dizkio zuzenketak.*

5- **Zer dio bukaera aldera, emakume batek mugikorreko ortografia-zuzentzaileari buruz?**

*Euskaraz idazterakoan, berari lagundu beharrean okerrago jartzen diola.*

6- **Zergatik barre egiten dute bukaeran?**

*Helduak kexu dira gazteek ez dutelako apenak idazten; baina mugikorrak direla-eta, pila bat idazten dute.*

*Paradoxa horrek grazia egin die.*



## TRANSKRIPZIOA

**NAGORE TELLERIA KAZETARIA.** Eta gure garaian gertatzen ari den aldaketetako bat da gazteek hitz egiteari utzi, eta idazteari ekin diotela, edo beraiek gero eta gehiago erabiltzen dutela idaztea lagunekin eta etxekoekin komunikatzeko. Hala, izena jarri diote: idazten duen belaunaldia, belaunaldi isila ere bai. 14 eta 24 urte-bitartekoek hitz egin baino idatzi gehiago egiten dutelako Facebook-ez, Messenger-ez, Whatsapp-ez edo Telegram-ez. Komunikatu bai, baina apenas berriketarako.

Iaz egindako datu-bilketa aurkeztu du Telefonikak, Gizarte Digitala izenburua jarrita. Eta esaten du % 96 paseak mezuak aukeratzen dituela familia eta lagunekin erabiltzeko. Eta gai honetaz galdetu diegu gazteei; Gasteizko ikasleei egin die galdera Unai Urreagak.



UNAI URREAGA KAZETARIA. Deiak egiten dituzue?

IKASLEA 1. Bai, noski! Nik, adibidez, sare sozialak eta Whatsapp erabiltzen ditut lagunekin eta aitekin (gurasoekin) kontaktuan egoteko.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Eta gurasoekin hitz egin behar duzunean?

IKASLEA 1. Ba inportantea ez bada, Whatsapp bat bidali, eta bestela, deitu.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Instagram zer, argazkiak-eta jartzeko?

IKASLEA 2. Bai.

IKASLEA 1. Nik, adibidez, erabiltzen ditut lagunak, lagunen argazkiak ikusteko, eta munduan zer gertatzen den jakiteko.

IKASLEA 3. Pues nik Whatsapp eta Instagram. Whatsapp hitz egiteko eta Instagram memeak ikusteko.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Zuen artean hitz egiten duzue, edo gehiago da norberak bere mugikorra...

IKASLEA 2. Bakoitza mugikorrarekin, baina hizketan denek.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Denak batera?

IKASLEA 2. Bai. Baina bakoitza bere gauzak egiten mugikorrarekin eta hitz egiten denekin.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Bi gauzak batera egiten dituzue?

IKASLEA 4. Guk ez. Gu kontaktuan jartzen gara, eta ez ditugu Whatsapp eta hori erabiltzen. Guk egiten dugu aurpegiz aurpegi.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Ortografia-eta zaintzen duzue?

IKASLEA 3. Nik ez. Nik jartzen dut eta korrektoreak (zuzentzaileak) egiten dit nire lana, eta "ya está"

UNAI URREAGA KAZETARIA. Eta emotikonoak-eta asko.

IKASLEA 3. Hori bai. Horiek pila bat, eta argazkiak.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Idatzi baino gehiago?

IKASLEA 2. Ez. Lehenengo idatzi, et gero emotikono batzuk jarri.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Zuen adinekoak oso engantxatuta ikusten dituzue?

IKASLEA 2. Bai.

IKASLEA 5. Bai. Asko. Gero eta gehiago. Eta umeak, 4 urtekoak, 5ekoak, badakite erabiltzen mugikor bat: nik baino hobeto, eta 16 urte ditut. Piska bat arraroa ez?

UNAI URREAGA KAZETARIA. Horrek zer pentsa ematen dizu?

IKASLEA 5. Ba tontoak garela.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Zergatik?

IKASLEA 5. Ba liburuak dauzkagu hor eskuan erakusteko, edo telebista zeozer ikusteko; eta aldiz, gagoz (gaude) mugikorrarekin.

UNAI URREAGA KAZETARIA. Bakartzen ari gara edo aislatzen? Edo gehiegi esatea da hori?

IKASLEA 5. Ez. Hori da gertatzen ari dena. Osea (alegia), bakoitza, geratzen gara, eta mugikorrarekin. Ba orduan zergatik geratzen gara?

NAGORE TELLERIA KAZETARIA. Gazteek Unairi erantzundakoa. Entzule batek dio ikusi besterik ez dagoela autobus-geltokietako irudia zein den: guztiak telefonoari begira, eta inork ez duela egun onik esaten.

Hasierako datuetara bueltatuta. Nola gazteen ia % 100ak erabiltzen dituen lagunekin eta familiarekin komunikatzeko mezuak. Ez gazteek bakarrik, orokorrean eta adin-tarterik eman gabe, esaten du % 60k ia egunean behin baino gehiagotan bidaltzen dituela idatzizko mezuak, eta 64 urtetik aurrerakoan artean ere % 87k idazten dituela mezuak maiztasun handiarekin.

ARANTXA URRETABIZKAIA IDAZLEA. Niri korrektorea... Hor batek esan du "korrektoreak zuzentzen du". Ba niri okertzen dizkit. Ematen dit lan handia, batez ere euskaraz ari zarenean. Bueno, gero esaten dugu, hola zaharrok, gaurko gazteek ez dutela irakurtzen eta idazten. Ba jolin, dirudienez...

TALDEAN. ...besterik ez dute egiten.